



Familia agurgarriak:

2015-2016 ikasturtean, Urola Kostako **Hezkidetza Foroa** jarri genuen abian Orio, Aia, Zarautz, Getaria eta Zumaiako ikastetxeetako hezkidetza-arduradunek, Berritzeguneko aholkulariek eta bailarako udaletako berdintasun-arduradunek. Foro horretan eztabaidatu eta adosten ditugu hiru egun hauetan ikastetxeetan eta herrian elkarrekin egiten ditugun ekintzak:

- **Azaroak 25** (Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna)
- **Martxoak 8** (Emakumeen Nazioarteko Eguna)
- **Maiatzak 17** (LGTBIQ+fobiaren aurkako Nazioarteko Eguna)

**Martxoaren 8a**, Emakumeen Nazioarteko Eguna, egun seinalatua bihurtu da azken urteotan bai ikastetxeetan eta baita herrian ere. Emakumeen eskubideak aldarrikatzeko eguna denez, aukera ematen du bizitzaren alderdi guztietan egiten duten ekarpena bistaratzeko, eta baita emakumeek orain arte ibilitako bideari buruz eta ibiltzeko dagoenari buruz gogoeta egiteko ere.

Aurten ere martxoaren 8aren gaia landuko dugu ikastetxean, gure tutoretza-saioetan, eta lanketa hori ikasleen etxetara ere eramán nahi izan dugu. Familiak zarete gure hezkuntza-komunitatearen oinarria eta ezinbestekoa iruditzen zaigu zuenean ere gai hauez hitz egitea, guztion artean hezkidetza-guneak eraikitzeke eta, horren bidez, berdintasuna eta ekitatea sustatzeko.

Bestalde, azken urteotan egin dugun bezala, «**Gu ere martxoak 8**» leloa duten pankartak eskegiko ditugu ikastetxean eta udaletxeko balkoian martxoaren hasieran, eta zuek ere animatu nahi zaituztegu gauza bera egitera. Udalak baditu lelo hori duten banderolak banatzeko, eta erraz eskuratu daiteke bat:

- **Banaketa-egunak:** martxoaren 1etik 8ra
- **Banaketa-orduak:** 10:00-13:30 / 16:00-19:30
- **Banaketa-tokia:** Kultur etxea
- **Prezioa:** doan

Mila esker parekidetasunaren alde egiten duzuen ahaleginagatik.

Besterik gabe, jaso gure agurrik beroena.

Orio, 2023ko martxoaren 1a.